


RAFA LARRETXEA ETA JOXE ELOSEGI-ERRUGBI ELKARTEKO KIDEA

“Koadro tekniko osoa zuzenduko duen entrenatzaile bat behar dugu”

■ Landareko taldeek lau titulu lortu dituzte ■ Landaren egiten duten lan soziala erakunde publikoek ez omen dute behar bezela baloratzen.



Rafa Larretxea eta Joxe Elosegi etorkizuneko errugbilariekin

AURTENGOA argi-itzal dezenteko denboraldia izan da Hernaniko errugbiarentzat: gazteek ia jokaturako titulu guztiak irabazi dituzte; eta seniorrek, berriz, mailari eusten lanak. Ekipoen arteko harremana sendotu egin da, Donibane Lohitzuneko taldearekin hasitako elkarlana bide onetik dijoa eta nesken taldeak pott egin izana, konpondu beharreko puntuetako bat. Horixe, labur esanda, aurtengo denboraldiari buruz Hernaniko Errugbi elkarteak egin duen balorazioa.

BURU TEKNIKOA

Rafa Larretxea eta Joxe Elosegi diotenez, azken urteetan talde tekniko asko sendotu da: azken lau-bost urtean jende bera dabil, harremana estutu egin da eta planifikazio oso baten barruan lan egiten da. Hala ere, planteamendu horretan beste pauso bat gehiago emateko premia ikusten dute. Helburua da,

TALDEZ TALDE

HCR-entzat talde seniorra da “Errugbi Elkarteen ispilu eta erreferentzia”. Ia 60 jokalariditu -gazteak gehienak- eta bi ekipo aritu dira jokatzeko. Nazional mailari eusteko gorriak ikusi behar izan badituzte ere, jokoz ez dira gaizki ibili. Joxek dionez, gauzak normal joanda, seniorretakoa sailkapenean erdiz gora ibiltzeko taldea da.

Jubenilek egin dute hazinarik haundiena, Euskadi eta Estatuko txapelkun gelditu dira. 20 jokalaridira taldean. Eta jokatzeko 15 behar direnez, denboraldian jokalariz justu samar ibili dira.

Kadeteak aurtengo “sorpresa”. 22 mutil koskorreko koadrila osatu da eta hasierako torneotatik ibili dira fin. Gipuzkoan eta Euskal Herrian ez dute kontrariorik izan, estatuko txapelketan gogoragoa izan bazen ere.

Eskolarteko mailan, berriz, 25 neska-mutiko ibili dira urte osoan oso lan serioa eginez. Horiek ere Gipuzkoa eta Euskadiko txapelkun gelditu dira.

LAN SOZIALA

Errugbiko arduradunen ustez, Landaren kirola ez ezik, lan soziala ere egiten da. “130 gazterekin egiten dugu lan. Astean bitan lau orduz hemen izanten dira, eta asteburuetan partidua. Gainera, errugbian talde lanak garrantzi handia du” dio Rafak. Gazteentzat, azkenean, prebentzio lana ere badela diote. Hala ere, Iparraldean ez bezala, erakunde publikoek ez dute lan sozial horretan behar bezala laguntzen. □

seniorrentzat buru tekniko bat jarri, aurtengo horren falta sumatu omen dutelako; eta aldi berean, pertsona horrek berak koadro tekniko osoa ere zuzentzea. Eta hartara, oraingo lanari etekin haundiagoa atera.

Hala ere, Landareko elkar- tea 9 milioiko aurrekontuari buelta ematen lanarekin ibiltzen omen denez, posibilitate ekonomikoek ere izango dute zer esana asmo berri horietan.



Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

Antziola-Motor

- ▶ Kotxe berri eta aukerako en salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitate eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Ikusi al duzu Mondeo berria ?



Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

ARRAUNA

Hernani-Ubis gaur Trintxerpen, B ligako lehen estropadan

■ Aurreko asteko sailkapenean ezin izan zuten A ligako estropadetan sartzeko posturik lortu .



Hernaniko arraunlariak esfortzu betean.

HERNANI-UBIS B ligan aurtuko da aurtengo denboraldian. Aurreko asteburuan jokatu ziren sailkapen estropadetan, ezin izan zuen A ligako estropadaren batean parte hartzeko eskubidea ematen zuten 16 lehenengo postutan sartu. Igandean jokaturako estropadan 20garren izan ziren, sailkapena ematen zuten azken postutik segundu gutxira.

GAUR TRINTXERPEN

Bakoitza zein ligatan ariko den erabaki ondoren, gaur bertan hasiko dira bi ligak. B ligak Trintxerpen du lehenengo zita. Arratsaldeko 17:00etatik au-

rreko Trintxerpeko ikurriña jokaturako da erlojupekoan, eta 9 traineruren artean han izango da Hernani-Ubis.

10 ESTROPADA

B ligan Hernani-Ubisek 10 estropada jokaturako ditu. Trintxerpen, Pedreñan, Pontejosen, Pasai Donibanen 3, Irunen, Donostian, Santanderren eta Irailak 1ean Donostian jokaturako den Hernaniko Ikurriñan. Hauxe gain, Getarian jokaturako den Gipuzkoako txapelketan eta Kontxako sailkapenean izango da. Aurtengo B ligan paper polita egiteko aukera du Hernani-Ubisek. □

Fono tel
norte

Produktu hauek aurkituko dituzu gure denda berrian :

- 1050
- Interneta
- Telefonía mugikorra
- Telefonía fijo
- Zentralitak
- Faxak

Banataile Ofiziala

Euskaltel

Kardaberaz kalea 68
Tel.: 943 33 60 25
Faxe: 943 33 50 79
20120 Hernani



'Límite vertical' filmak itxiko du aurten udako zine saioa

■ Ostegunean pelikulan jarritako aulki guztiak bete egin ziren ■ 22:30etan.



Adin guztietako jendea izan zen ostegunean *Traffic* pelikula ikusten.

UDAKO zine saioak indar handia du Hernanin eta aurtengoa jendez oso ondo hasi da. Adin guztietako jendea bildu zen narkotrafikoarekin lotutako *Traffic* filma ikustera

600 LAGUN
Udaletxeko kultura sailetik esan digutenez, aurten 600 aulki jarri dira, eta ostegunean behintzat, denak bete ziren. Batzuk elizako eskaileretan

eserita ikusi behar izan zuten. *Límite vertical* pelikulan eskalatzen ari den talde batek istripua du eta hor hasten da istorio dena. Kritikak dioenez, oso irudi onak ditu. □

BERRIAK ELKARTEA

Ohiko Merkataritzaren egoerari buruzko hitzaldia izan zen herenegun

■ Bezeroa zaintzeko teknikak aztertu ziren ■ Berriak Elkarteak antolatuta.



Merkatariak osteguneko hitzaldian Jose Mari Sanzen hitzak entzuten.

OSTEGUN arratsaldean merkatarientzat hitzaldia prestatu zuen Berriak Elkarteak. Bertan, Merkatal Ganbaratik etorritako Jose Maria Sanz de Bikuñak bezeroari kalitatezko atentzioa emateko teknikak aztertu zituen. Espezializatze dagoen beharraz aritu zen, eta supermerkatuen aurrean ohiko merkataritzak dituen abantailak azpimarratu zituen: tratatu pertsonalagoa, bezeroaren ezagutza eta abar. 25 bat merkataria bildu ziren. □

Osinagako auzo elkarteak bilera du igande goizean

■ Auzoko arazoak, irailerako eskurtsioa, bideak eta abar dituzte hitz egiteko ■ 12:00etan Harriatsun.

IGERIKETA

10 igerilari hernaniar, Gipuzkoako txapelketan

■ Txapelketa gaur eta bihar jokatu da, Ordizian
■ Absolutetan, jubeniletan eta kadeteetan aterako dira.



Hernaniko hiru igerilari, iaz Gipuzkoako txapelketan.

GIPUZKOAKO Igeriketa txapelketa gaur eta bihar jokatu da Ordizian eta hernaniarrak han izango dira medailen batzuk ekartzeko. Denera, 10 dijoaz, 4 neska eta 6 mutil. Probak egun osoan dira.

Bestalde, aurreko larunbatean Euskal Herriko txapelketa jokatu zen eta han ere lau hernaniar izan ziren. Iara Jimenezek bi domina irabazi zituen 50 eta 100 metro bular estiloan. □

ANTZERKI FERIA

Zazpi estreno gaur, Antzerki Feriako azken egunean

■ Donostiako Antzerki Feriak azken traka du gaur. Zazpi obra antzeztuko dira eta horietatik bat estreno ofiala izango da "Rulos" Alcalá Prod. konpainiak aurkeztua. Beste hiru obra gaur antzeztuko dituzte gaztelaniaz estreinako aldiz.

Hauxe da gaurko egitaraua: 12:00etan, *Los Papalagui* (Teatro de Aquí), Lugaritzen. 17:00etan, *Palabras en penumbra* (Alben P + Espai Moma), Egian. 19:00etan, *Rekolore* (Hortzemuga), Zuloaga plazan. 20:00etan, *Rulos* (Alcalá Prod), San Telmon. 23:00etan, *Prometeu* (Circo Mínimo), Zurriolan. Eta Antzerki Feriako azken obra 00:30etan, *CO2* (La Danaus), Okendo plazan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Eguez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 55 17 93
▶ Gaez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 55 17 93

HEMEN

Ibilgailuak engrasatu eta esku garbitzen ditugu.

Florida 56 - ☎ 943 551005 - HERNANI (LIDL eta DIA supermerkatuetatik 100 metrora)



TABERNA - JATETXEA
BOKATAK KAZUELITAK PINTXOAK

LIZEAGA 4 - Tel. 943 33 33 95 - HERNANI

Telemar

ITXASTELE S.L.
Telyco denda

Elkano 13, ☎ 943 33 26 00
20120 HERNANI

ESKEINTZAK:

ordenagailua:

AMD K7 ATHLON 1000 Mhz
(SDRAM 512 Mbko memoria, 40 Gbko diska gogorra, 17"ko monitorea, Geforce MX 32 Mb AGP tarjeta grafikoa, DVD Pioneer irakurlea, Yamaha Erregrabadorea, Sound Blaster 1024 PCI ko soinua txartela ...)

149.900 Pta + %16ko Bez a.

- ⇒ 'Telefonica'ko banatzailea
- ⇒ Movistar
- ⇒ Zentralitak
- ⇒ Faxak
- ⇒ Telefonía mugikorra



Orain PACK MOVISTAR

MAVIA APAINDEGIA

Zure estetika-zentroa Hernanin

- ⇒ DEPILAZIOA: - Hotza - Beroa
- ⇒ DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- ⇒ MANIKURA
- ⇒ AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ⇒ SOLARIUMA (Eskaintza berezia: 10 + 2)
- ⇒ GORPUTZ TRATAMENDUAK: Presoterapia
- ZURE ESANERA GAUZKAZU EGUN OSOAN!!
- ANIMA ZAITEZ ETA BISITA GAITZAZU!!

Kardaberaz 60 - Tel: 943 55 27 49 - 20120 HERNANI